

Urte askotarako, Topatu!

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

HTML-n idatzi beharragatik, webgunean desitxuratuta agertzen ziren albisteak, gazte topagune eta martxen jarraipen euritsu eta lokaztuak, greba orokorren jarraipenerako ikaskideek prestatu eta Errondabideko egoitzan jandako pasta entsaladak, eta Algortako Koxka irratiarako bidean, metroan prestatutako irratsaio eskaletak.

Sekulako nostalgia izan dut eguntan, duela hamar egun, Topatu gazte komunikazio proiektuak hamar urte bete dituela jakin bainuen. Poza eta

nostalgia, biak nahastu zaizkit kide izan nintzen proiektuak hamar urte bete dituela ohartzean. Kazetaritza hasi berritan Leioako campusean eta Bilboko kaleetan ohitzen ari zen neska gazte hartaz oroitu naiz. Topaturen aurrekaria izan zen 2003an sortutako Gaztesarea.net-en parte hartu izana ohore handiko zerbait bezala gortzen dut nire oroimenean. “Gazte informazio agentzia” izateko anbizioa zuen komunikazio proiektua izan da militantziarako izan dudana esparrurik atseginena.

Indarrez itxi zuten Gaztesarea. Gazte mugimenduaren barnean zuen erreferentzia, seguru asko, deserosoa zitzaielako hainbati. Haren oinordekotzan sortutako Topatuk ere egin zuen auzitegiarako bidea. Eta orain, hamar urte bete ditu. Urteurren borobila baliatuta, abiapuntura itzuli eta berrasmatzera jo nahi dute gaur egun proiektua sostengatzen dutenek. Zorte-rik onena opa diet. Jarrai dezatela sentitu, pentsatu, egin eta adierazten, euskal gazte mugimenduaren bozgorailu izaten! •

Veleia

Joxean Agirre

2006ko ekainean Eliseo Gil Iruña-Veleia aztarnategiko zuzendariak Gasteizko Lakua hotelean eman zuen prentsaurreko sonatuan zientzia fikzioaren mugakoa zirudien hipotesi bat proposatu zuen aurreko hilabeteetan aurkitzen ari ziren grafito eta ostraka “ezohikoen” jatorria esplikatzeko: Ponpeia Valentina izenarekin bataiatu zuten etxe ikusgarriaren jabeek irakasle egiptoar bat kontratatatu zuen, itxura guztien arabera, etxekoei eskolak emateko. Ikasleek arbel gisa erabilitakoak ziren etxe horretan agertutako ostraka gehienak.

Idazkuntan latin eta grezierarekin batean euskarazko hitz eta esaldiak agertzen ziren. «Ikastola bat III. eta V. mendeen artean?», galdetu genuen ha-

rriturik. Inplikazio historikoak kalkulazinez ziren, kristautasunaren etorraz edo euskararen presentziaz bereziki. Veleia hiria bera aztarnategi erromatar handiaren pare kokatu beharko zela gogoratu zuen Gilek, gutxienez Italiako Ponpeia eta Britainia Handiko Vindolandakoaren parean.

Geroztik Iruña-Veleiari buruz irakurrirri ditugun kontakizun guztiak suspense puntu batekin irakurri ditugu.

Prentsaurrekoa eta berehala hasi ziren gure filologo puntakoenak ostraka horiek ezinezkoak zirela esaten. Analtikek, aldiz, (karbono-14aren probak AEBetako Massachusetts eta Herbeheretako Center of Isotope Research-en, termolumineszentzia probak Krakoviako Unibertsitatean, espektroskopia

nuklearraren bidezkoak Parisko CEA-CNRSn) kontrakoa.

2008ko azaroan etorri zen Adituen Batzordearen kontrako epaia eta handik hilabete batzuetara auzipetu zituena Foru Aldundiak Eliseo Gil eta bere bi kolaboratzaile. Geroztik Eliseo Gil eta bere taldearen aldekoak izan dira egin diren txostenak. Iruña-Veleia Argitu herri plataformak egin duen lana izugarria da. Etzi Gasteizen hasiko den epaiketan epaileek Eliseo Gilen aldeko hogeitxosten aztertu beharko dituzte eta kontrako zazpi.

Garbi dago epaiketak ez duela eztabaida erabakiko, baina Eliseo Gil eta bere taldeari izen ona itzuli eta eztabaida berriro zientziaren arlora ekartzeko balio badu, gaitz erdi. •